

IÑAKI GURRUTXAGA

LIZARDI SARIKETAKO IRABAZLEA

«Belaunaldi gazteko batzuek burua ateratzen hasi behar dugu»

Iñaki Gurrutxaga oriotarrak urte biribila darama. Hiru sariketatan aurkeztu eta hiruretan finalera iritsi da: Osinalden bertso onenaren saria jaso zuen, Gaztetxeetako txapelketan bigarren gelditu zen, eta azkenekoan, joan den ostiralean, Lizardi sariketa irabazi zuen.

Amets Arzallus | DONOSTIA

Lizardi sariketako txapelak konfiantza eman dio Iñaki Gurrutxagari. Eta konfiantza horrekin, finaleko saioaz, gazte belaunaldiaz eta aurrera etor daitekeenaz hitz egin digu.

■ Hitz egin ezazu zure finaleko saioaz?

Zortziko handian Iñigo Izagirre eta biok ginen. Gaia ez zen txarra, baina planteamentua eskasa zen. Nolabait egin genuen. Txikian Joxe Anjel Aranbururekin nintzen, eta gustura jardun nuen. Ordura arte erritmo handirik gabe zihoan saioa, baina hor berotu egin zen. Kartzelako lanarekin ere pozik gelditu nintzen. Bat aukeratzekotan, bera aukeratuko nuke. Txikian bertso hobeak joango ziren agian, baina kartzelan neure burua solteago sentitu nuen.

■ Udara honetan Euskal Herria lainoan egon da zen kartzelako gaia. Batzuek eguraldiari heldu zioten; zuk, berriz politikari.

Gaia politikatik heltzeko jarrita zegoen, nik uste, baina formula zioa nahiko nahasgarria zen. Gainera, gaiaren aurreko puntua eguraldiari buruzkoa zenez eta normalean puntua eta gaia lotuta egoten direnez, eguraldiari buruz hasteko bidea ematen zuen. Baina, tira, gaia entzun nuenean, hauxe bururatu zitzaidan niri: *uda honetan tokatu zaigu lainoan egotea / nahiz ez dakidan lainoa ote den edo Madrileko kea*. Eta halaxe bota nuen.

■ Gaiekin ez zineten, beraz, oso konforme gelditu?

Hasieran, kanporaketekin oroituz, gaietan zer tokatuko, belhurtuta geunden. Han eman egin nahi duzu, eta gaiek mugatzen bazaituzte, ba... Jon Martinek, Jokin Urangak-eta zorte txarra izan zuten gaien aldetik. Bertso aldetik denak berdintsu jardungo ginen, baina gaiek asko baldintzatu zuten.

■ Txapela gutxi balitz bezala, bertso onenaren saria ere eman zizuten.

Bai, zortziko txikian kantatutako bertsoa saritu zidaten. Joxe Anjel Aranbururekin nintzen. Gaia hauxe zen: bikotea ginela eta



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

FINALEKO SAIOA

“Nik uste dut bertsoan denak berdintsu jardun ginela, baina gaiek asko baldintzatu zuten finalaren nondik norakoa»

gaur goxo-goxo geundela, baina parte ezkutu batean bere aurreko neska-lagunaren izena tatua-tuta ikusi niola. Orduan, *hanka tartean Ana jartzen dio izen / ez baitzitzaien letra gehiago kabitzen* bota nion. Eta horri eman zioten saria. Saria Julen orain gutxi hildako lagunari eskaini nion. Txapeldun nintzela jakin banu, gero gordeko nuen eskaintza, baina hori ezin nuen jakin, eta gorde izan banu, batere kantatu gabe gelditzeko arriskua nuen.

■ Egun, Maialen, Iturriaga... Horien belaunaldia plazan egonkortua dago. Baina Lizardin bertsolari gazteen belaunaldi bat badatorrela ikusi zen. Laster, beharbada, zuei etorriko zaizue plazako lekukoa hartu behar izatea.

Bai Osinalden, bai Lizardin, jende berdintsua ibili gara bueltaka. Gerta liteke hurrengo urtean jende berria sartzea, baina egia da memento honetan belaunaldi batekoak hor gaudela. Gainera, orain arte bertsolaritza oso beldunaldika joan da: Egaña-

ren-eta belaunaldia, Maialena... Orain arte, horien itzalpean ibili behar izan dugu, ez ginen iristen eta. Baina orain, sendotuta gaude, eta hasi beharko dugu, denak ez bada, batzuek burua ateratzen. Gainera, kontua ez da aurrekoak lekua galtzen doazen heinean gu sartzea. Merkatua zabala da, eta horie-

kin batean sartzen asmatu behar dugu. Eta ez naiz urrunera begira ari. Hurrengo Euskal Herrikoan nik hogeita lau urte izango ditut. Beraz, aurretik egin behar dugu zerbait.

■ Hurrengo urtean daukazue Gipuzkoako txapelketa.

Hori da. Orain arte gazte sariketetan egin duguna, belaunaldi bat garela, egiten badakigula, hor erakutsi behar dugu. Ez bada gorainoko salto bat ere, behintzat pauso bat aurrera eman. Gainera, gure beldunaldia talde moduan ageri da, oso lotuta gaude, eta hori aprobetxatzen jakin behar dugu.

IRAGARKI MERKEAK © 943 300 222



ZORIONAK GARTZEN
NO PASASIAVI
4 SI PASAN
NO LES HAREMOS CASO

33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 19 €
Astea (6 egun): 15 €
2 aste (12 egun): 13 €
Hilabetea: (24 egun): 9 €

33 x 33 mm

MUSIKA

Lux Orpheirekin hasiko da gaur Lizarrako Antzinako Musikaren Astea

Carlos Mena gasteiztarren Lux Orphei taldearen emandarekin hasiko da gaur Lizarrako Antzinako Musikaren Astea, Gasteizko eta Logroño antzinako musika asteen laguntzarekin. Egitaraua, hain zuzen ere, bera izanen da hiru hirietan. Gaurko kontzertua, ordea, Lizarran bakarrik entzun ahal izanen da. Lux Orphei taldeak Vivaldi konpositorearen piezak eskainiko ditu gaur, San Miguel elizan, 20:00etatik aurrera.

ARTEA

Berlingo Guggenheimeko Txillidaren obrak 27.000 lagunek baino gehiagok ikusi dituzte

Eduardo Txillida- Antonio Tapies izenburuko erakusketa 27.000 ikusle baino gehiagok ikusi dute uztailaren 20tik hona, Berlingo Guggenheim museoan. Euskal Herriko artistaren eta kataluniarraren bideak dakartza gogora erakusketak. Horretarako, artista bakoitzaren 24 obra inguru daude ikusgai, irailaren 27a arte.

ZARZUELA

Donostia Kulturak udako denboraldia bi zarzuelarekin amaituko du

Lirica Sasibil taldeak itxiko du Donostia Kulturak antolatutako antzerki denboraldia, bi zarzuela taularatuz: Jacinto Guerreroren *Los gavilanes* eta Pablo Sorozabalen *La taberna del puerto*. Lehena ostegunean eta ostiralean egongo da ikusgai, Antzoki Zaharrean, eta bigarrena, berriz, larunbatean eta igandean, leku berean.